

Aurtengo gripeak gogor jo du Frantziako Estatuan



Aurten beste batzuetan baino babes txikiagoa eman du gripearen aurkako txertoak.

Hortaz, aurten txertoak beste batzuetan baino babes txikiagoa eman du gripearen aurrean. Erne gotea dagokigu, balizko sintomak agertzekotan. ■

AZKEN ASTEOTAN Frantziako berriemaileek erakutsi dizkiguten gripearen eboluzioaren datuek harridura sortu dute hiritarren. Ez dakit hango datuak Euskal Herri osora zabalgarriak diren ala ez, baina ez zait iruditzen Hego Euskal Herriko datuak –Ipar Euskal Herrikoak, zer esanik ez– Frantziako Estaturaren oso desberdinak izango direnik.

Urtarril amaieratik otsail amaiera arte irauten ari den gripe epidemiaren aurkako txertoak uste baino emaitza ahulagoak eman ditu 65 eta 85 urte arteko hiritarren, eta ohi baino kasu larriago artatu dituzte ospitaleetan.

EAEn enpresak haserre I+Grako laguntza publikoak direla eta

2020RAKO, Eusko Jaurlaritzak Europar Batasuneko araudiekin bateratu du EAEn I+G estrategia. Aurreko asteetan gure ikerketa zentroen urdritasunaren berri eman dugu; orain enpresei dagokie. Bi hitzetan: EAEn ikerketa egiten duten enpresei diru gutxiago eta baldintzak gogortzea ekarri du 2015eko Gaitek deialdiak.

2014an 1.400 proiektu aurkeztu ziren, eta horietatik 800ek jasoko dute nolabaiteko finantzazioa, 2015eko otsailean emandako ebazpenaren arabera. Urtea igarota eta, beraz, proiektuak amaitu ondoren ezagutu dugu finantzazioaren zenbatekoa. Ona da diru publikoaren kontrol neurriak ezartzea, baina administrazioak ere lidera izan beharko luke berrikuntzan eta kudeaketan; aurten gerrikoa estuztea eskatu zaie enpresei, eta antza denez administrazioak ez du inolako berrikuntzarik aurreikusitako, publikoki bederen. Ondorioz, enpresetan urdritasuna eta haserre zabalduta dira. Eta hori ez da egokia ikerketarako. ■



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



www.iametza.com
T.943 37 67 16

Martxoaren 20ko eklipsearen eragina energi produkzioan

Gero eta garrantzi handiagoa du, mundu osoan, eguzki energi ekoizpenak. Martxoaren 20an eguzki eklipsea izango da eta, NASAk adierazi duenez, gertaera horrek jaitsiera esanguratsua eragingo du energia fotovoltaikoaren produkzioan.

ttiki.com/337208
(Frantsesez)

Material natural erresistenteena aurkitu dutela aldarrikatu dute

Portsmoutheko Unibertsitateko ikerlarien arabera, lapen hortzena baino material erresistenteagorik ez dago Lurrean. Horrenbestez, material horrek podiumeko maila gorenetik kendu du armiarmen zeta, besteak beste balen aurkako atorrak egiteko erabiltzen dena. Ikerlariak behatu dutenez, lapen hortzen barruan goethita izeneko mineral gogorra dago.

ttiki.com/337209
(Gaztelaniaz)

Inkestak egiteko erak eskuineko alderdien emaitzak puztu ditzake

Nafarroako Unibertsitate Publikoan egindako ikerketa baten arabera, hauteskunde aurreko inkestak telefono finko bidez egiteak emaitza desitxuratzen du, mugikorra baizik ez dutenen iritzia kanpoan uzten baitu. Ikerlarien esanetan, ondorioetako bat da eskuineko alderdien aldeko boto aurreikuspena puztu egiten dela.

ttiki.com/337210
(Gaztelaniaz)